



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

La Fura dels Baus konpainiaren *Carmina Burana* ikuslea Carl Orff-en musika indartsuan murgiltzen du show ikusgarri baten bidez

- Arriaga Antzokian 12 emanaldi izango ditugu ikuskizunak Bilbon emango dituen bi asteetan zehar, irailaren 26tik (osteguna) urriaren 6ra (igandea) arte.
- La Fura dels Baus konpainiak *Carmina Burana* ikusgarri bat sortu du, eszena hunkigarritz, efektu bereziz eta lurrinez ere josia, zuzeneko musikarekin eta agertokian 50 artistatik gora bilduz.

Bilbo, 2024ko irailaren 24a.- *Carmina Burana*, La Fura dels Baus konpainiarena, klasiko bat da dagoeneko nazioarteko eszenan. 3 kontinente zeharkatu eta 350.000 ikusletik gora izan ondoren, ikuskizun hau konpainia ospetsuaren arrakastarik handiena da dagoeneko, bere historia osoan emanaldi eta bira gehien izan dituen ikuskizuna baita. Bilbo eta Arriaga Antzokia arrakasta horren partaide dira, izan ere, superproduzio hori 2018ko abenduan hemen ikusi ahal izan baikenuen. Orain, sei urte geroago eta are erakargarriago egiten duten doikuntza eta hobekuntza batzuekin, *Carmina Burana* Arriaga Antzokira itzuliko da. Etzi, ostegunean, irailaren 26an, Arriaga Antzokian urriaren 6ra bitartean eskainiko diren 12 emanaldietatik lehena izango dugu.

Datozen bi asteotan, beraz, Bilboko ikusleek **Carl Orffen** musika indartsua mantentzen duen produkzio handi batez gozatu ahal izango dute, La Fura dels Bauseko **Carlus Padrissaren** dramaturgia eta zuzendaritzarekin. Ikuskizun ikusgarri bat da. Ikuslea, eszena hunkigarrien, efektu berezien eta baita lurrinen bitartez ere, egile alemaniarraren musika sendo eta errailetikoa murgiltzen da, zeina eszenan dauden 50 artista baino gehiagoren parte-hartzearekin interpretatzen baita zuzenean.

Agertokian, zortzi metroko diametroa duen zilindro batek musikariak inguratzen ditu, eta bertan proiektatzen diren irudi batzuek obra osoa irudikatzen dute, hasieratik amaierara: ilargi erraldoi bat, urtze-aldia, lore-estasi bat, zuzeneko mahats-bilketa bat, tabernak, garabetatik zintzilik dauden abeslariak, ardotan murgildutakoak, ura eta sua... horixe da *Carmina Burana*.

Jatorriak

Jatorrizko *Carmina Burana* XII. eta XIII. mendeetako poema bilduma bat da, zeina 1803an Johann Christoph von Aretin-ek Bavariako Benediktbeuern abadian aurkitutako kodex bakarrean kontserbatu baitzen; gaur egun Bavariako Estatuko Liburutegian dago gordeta, München. Kodexak 300 poema biltzen ditu guztira, eta gehienak latinez, alemanez eta frantsesez idatzita daude. Poema horietan bizitzaren plazera eta lurreko plazerekiko, haragizko maitasunarekiko eta naturaren gozamenarekiko interesa

goraipatzen dira, betiere garaiko gizartearen eta elizaren estamentuekiko begirada kritiko eta satiriko batekin.

Carl Orffek, teknologia berrien eta horiek eskaintzen dituzten aukera eszenikoen zaleak, bere *Carmina Burana* 1935 eta 1936 bitartean konposatu zuen, eta jatorrizko kodexeko 24 poematan oinarritu zen. Obraren jatorrizko izenburua, *Carmina Burana* (*abesti sekularrak abeslari eta abesbatzentzat, instrumentu eta irudi magikoekin kantatuak izateko*), da La Fura dels Bausek sortutako ikuskizunaren abiapuntua.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 22 eta 64 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Carmina Burana

Eszena-zuzendaritza eta eszenografoa: **Carlus Padrissa** (La Fura dels Baus).

Eszena-zuzendariaren laguntzailea: **Mireia Romero / Zamira Pasceri**.

Musika-zuzendaritza: **César Belda**.

Ahotsak: **Amparo Navarro, Ángel Martínez, Hevila Cardeña, Lorenzo Moncloa, Rajiv Cerezo, Raquel Cruz, Adrián Espada**.

Orkestra eta abesbatza: **Orquesta Sinfónica Chamartín eta CB Creatives**.

Jantzien diseinua: **Chu Uroz**.

Argiztapenaren diseinua: **Melanie Schroeder**.

Bideoaren eta ikus-entzunezkoen diseinua: **David Cid / Sagar Fornies / César Cámara**.

Soinuaren diseinua: **Roc Mateu**.

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus